

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

41 positibo berri
1.622 hildako EAEn
2.495 positibo guztira*
UCIn, EAEn

NAFARROAN

21 positibo berri
529 hildako
5.627 positibo guztira
Sendatuak EAEn: 18.539

«Muxu eta besarkadarik gabe, ezin da hain maiteak ditugun Kaxkoko festez disfrutatu»

Bizi izan dugun pandemiak eraginda, Urumea bailarako herri zein auzoetako festak bertan behera gelditu dira, eta horixe bera gertatu da Kaxkoan, «hain maiteak» diren Karmen Jaiakin.

HERNANI KARMEN JAIK

Gaur ez da urteroko Kaxkoko hildakoen omenezko meza egingo, eta goizeko 09:30etan egiten den dianak ez du Kaxkoa esnatuko; COVID-19ak sortutako egoera medio, ez baitira Karmen Jaiak ospatuko. Kaxkoko alkateak, eta Kaxko elkarteko hainbat kidek, haien «tristura, sentipenak eta buruhausteak» kontatu dizkiote Kronikari.

Uztailaren 16a izaten da Karmen eguna, eta gaur, 25 urte betetzen dira, Karmengo jaiak berrabiarazi zituztenetik, Hernaniko Kaxkoan. Elkartekoez, «tristura haundia» dutela adierazi dute; izan ere, «beti izan dira Karmen Jaiak oso bereziak, batez ere pertsona adindu eta helduentzat. Asko disfrutatzen dute, eta oso giro polita eta sanoa sortzen da». Parte hartze haundia izaten da urtero Kaxkoko jaietan; gainera, «jendeak asko kolaboratzen du, eta hori eskertzekoa da».

Baina aurten, Koronabirusak eragindako osasun alarma dela eta, Karmen Jaiak bertan behera uztea erabaki zuten Kaxkoko elkartekoez: «jai hauetan, gainera, helduak gara gehienok, eta pandemia honetan arrisku gehien pertsona helduek daukate. Beraz, jaiak ez egitea erabaki genuen, jende pilaketak saihestuz, eta denon segurtasuna bermatzeko, gehienbat. Ez



Koronabirusak eragindako osasun alarma dela eta, Maitere Minerrek (ezkerretik bigarrena) jarraituko du aurten ere, Kaxkoko alkate izaten.

dugu sardin-jaterik egingo, ezta bazkaririk ere. Azken batean, 120 pertsona biltzen gara urtero bazkari baten bueltan, eta aurtengoan ezin gara arriskatu halakorik egitera». Argi utzi dute beraz, Kaxko elkartekoez, ez dituztela ekintzak antolatuko. Eta horrekin batera, jakinarazi dute alkate berdinak jarraituko duela auzoko aginte makilarekin, beste urtebetez: «ez dugu alkatetza aldatuko, horrek dakarrenagatik. Jendea hurbilduko litzateke, eta pilaketak ekar ditzake». Hori dela eta, datorren urtera arte Maitere Minerrek jarraituko du alkate izaten, eta datorren urtean, «egoera hobetzen bada», alkate berria izandatu dute.

Alkatea izendatzeaz gain, urtero egiten dira omenaldi ezberdinak, baina aurtengo egoerak behartuta, datorren urtean egingo dituzte omenaldi eta ekintzak: «hori espero dugu be-

hintzat, eta gogo haundiz gainera». Junkal Dorronsoro Kaxkoko lehendakariak aipatu du, gainera, hurbileko festak direla Karmen Jaiak: «bizilagunekiko gertutasun bat sortu da hasieratik, denok elkarlanean, festa ederrak sortzen ditugu. Eta Kaxkoari, izugarritzko bizitza

«Aurten, Karmen Jaien 25garren urteurrena zen, hala ere datorren urtean, indar haundiagoz hartuko ditugu festak, eta ekintza berezi bat egingo dugu 25garren urteurrena ospatzeko, seguruenik»

ematen dio Karmen egunak, eta jendearen inplikazio eta gogoak. Tristura haundiarekin esan diegu ezetz festei, baina egoerak hala behartu du, eta Kaxko elkartekoez hainbat bilera egin ostean, ikusi genuen, ezingo genituela ezarritako protokolo eta segurtasun neurri guztiak bete.

«Jende ugari laguntzen du Karmen eguna antolatzen, eta horrek bizilagunekiko gerutatusa ere ematen digu. Guzti haiei eskerrak eman nahi dizkiegu, hainbeste laguntzeagatik»

Azkenean, muxurik eta besarkadarik gabeko Karmenak, ez dira betikoak izango, eta horretarako nahiago dugu, hurrengo urtera arte itxaron, eta modu ezin hobean ospatu».

Jakinarazi dute, festen aurretik lehenetsi dutela herriarren osasuna, eta datorren urteari begira, urte honetan ospatu ez den 25garren urteurrena ere ospatuko dutela: «omenaldi eta ekintzez gain, zerbait berezia prestatuko dugu, ziurrenik».

«Eskerrik asko, orain arteko laguntzeagatik»

Elkartekoez eskerrak eman nahi izan dizkie orain arte laguntzen egon diren guztiei, eta Karmen Jaien parte izan direnei. «Datorren urtean indar gehiagorekin itzuliko gara, eta behar den moduan ospatuko ditugu, hain maiteak ditugun Karmen Jaiak», nabarmendu dute. **K**

AKELENEA
Erretegia - XIX Mendeko Sagardotegian

Koldo eta Ana

Entsalada
Kostila patatekin
Postrea
Sagardo botila

22€
Larunbatean
enkarguz

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333

Karmen jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!

oa

Andre kalea 13-16
Tel: 943 55 24 48

PINEDA

HARATEGIA

Karmen jai zoriontsuak
opa dizkizuegu

IK

943 55 16 43
Andre kalea 32

PORTALONDO
ESTANKOA

Tabakoak
Puruaeren Cava
Opariak
Paperdenda
Estatu loteriak
Jokoak

Karmen jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!

Andre kalea 46 943 551 991

GAUR Gaurkoan, giro ilun samarra izango dugu. Aurreko egunean bezala, goizean zerua lainotuago egongo da, baina arratsaldean argitu egingo da eguna. **Min.15° / Max.20°**

BIHAR Bihar hobetzeko joera hartuko du eguraldiak. Eguna lainoan hasiko dugu, baina orduak igaro ahala lainoak gubitu eta arratsaldean benetan eguzkitsua izango da. **Min.16° / Max.22°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 ANBULATORIOA: 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) Egunez: **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



Maskarilla erabiltzea derrigorrezkoa, gaurtik EAEn eta bihartik Nafarroan

Nahitaezkoa izango da maskarilla jartzea kalean eta espazio itxietan, «pertsonek arteko distantzia edozein izanda ere». Neurria gaur sartuko da indarrean Gipuzkoan, eta bihar Nafarroan.



Herritarrek kalean, maskarilla jantzita.

URUMEA KORONABIRUSA

Asko izan dira, azken egunetan, agertu diren Koronabirus kasu berriak, foko ezberdinekin. Atzo, 60 kasu berri erregistratu ziren EAEn, eta horietatik 41 Gipuzkoan eman ziren; eta Nafarroan, 21 izan ziren. Horregatik, maskarilla derrigorrezkoa izango da, bai EAEn eta bai Nafarroan, kalean eta espazio itxietan,

«pertsonek arteko distantzia edozein izanda ere».

Gipuzkoan, gaur bertan sartuko da neurria indarrean, eta bihartik aurrera izango da derrigorrezkoa, Nafarroan.

Egoerak hartu duen bidea ikusita, erabaki dute neurriak zorroztea, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak: «desa-

gertu beharrean, zirkulatu jarraitzen du birusak».

Edozein espazio publikotan da nahitaezkoa maskarillaren erabilera; eta baita hondartzan eta igerilekuetan ere, joan-etorrietan zein paseatzeko.

Nafarroan, 12 urtetik gorakoentzat izango da derrigorrezkoa, maskarillaren erabilera. **K**

Bederatzi film labur eta Beñat Iturriozekin solasaldia, gaurkoan

Aurten ere Laburbira antolatu du Doberak, eta gaur arratsaldean izango da Biterin, 18:30etan hasita. Filmetako bat, Beñat Iturrioz hernaniarraren 'Gau beltza' izango da.

HERNANI LABURBIRA

Ohi baino beranduago, baina aurten ere ez du hutsik egingo Laburbirak, Hernanin. Izan ere, Dobera Euskara Elkarteak antolatuta, gaur izango da Biterin, arratsaldeko 18:30etan hasita, Euskerazko film laburren XVII. zirkuitua. Maiatzaren 25erako zegoen antolatuta Laburbira, baina osasun alarmaren eraginez atzeratu, eta gaur egingo da.

Bederatzi film labur, eta solasaldia

Bederatzi film labur eskainiko dituzte, eta solasaldia ere antolatu du Doberak, film horietako baten zuzendariarekin: Beñat Iturrioz hernaniarrarekin, hain justu. *Gau beltza* film laburra da berak zuzendutakoa, eta gaurkoan pelikula hau ere egongo da ikusgai, Laburbiran.

Honakoak dira, gaur arratsaldean jarriko dituzten beste

zortzi filmak eta horien egileak: *Urak dakarrena* (Marilyn Taldea), *Anti* (Josu Martinez), *Tigre bat* (Amaia San Sebastian), *Pil pil* (Kristina Zorita), *Mamarro* (Ibon Iza Totorika), *Kateak* (Yolanda Mazkian), *Jauzi bat eta prixt* (Maitane Eyheramonho), eta *Harria herria* (Dimegaz Kultur Elkartea).

Doberak jakinarazi du, bi helburu nagusi dituena Laburbirak: «alde batetik, euskerazko sortzaileen lana ezagutaraztea, euskeraz ekoizten jarraitu dezaten aukera zabalduz; eta bestetik, ikusleak hemen eta euskeraz sortutako lan hauekin gozaraztea». **K**

MARISCOS HERNANI

609 67 43 44
943 55 51 56

Mariskoan espezialistak
Gora Karmenak!

KALE NAGUSIA, 20
20120 HERNANI
GIPUZKOA

OINDI

taberna

Ondo pasa
Karmenetan!

NAGUSIA, 25
943 55 75 89

Allianz ASEGURUAK

bizitza -
laburpenak -
ibilgailuak -
etxeak -
komertzioak -
enpresak -
ardura zibila -
finantz aseguruak -
inbertsioak

agustin ezponda irizar
agentzia

Bulego berria:
Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

Ondo pasa
Karmenetan!

Gora Karmenak!

MARI FE
ARRANDEGIA

NAGUSIA 36 943 550 489

IRAGARKI MERKEAK

Pertsona bat behar da asteburuetan prentsa-kioskoan lan egiteko. Euskara jakitea ezinbestekoa. **Deitu 688 69 40 34**

Neska euskalduna haurrak zaindu eta klase partikularak emateko prest, deitu: 618119781

Emakumea lan bila: edozein lan egiteko prest! Deitu: 609 209 161

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

Tripontzi jatetxea

Ondo pasa
Karmenetan!

ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

HATOR
AHOLKULARITZA

Ondo pasa
Kaxkoko festetan!
Gora Karmenak!

MAPFRE ASEGURUAK

Andre kalea 60, Hernani
Tel: 943 55 43 12
hator@euskalnet.net

AMAIA

TRTINKA
ITSXEBIKI
FRESKO ETA
IZOZTUAK

Ondo pasa
Karmen jailetan!

Andre kalea 34
Tel.: 943 55 07 52
943 55 22 11
20120 Hernani

JOMERI

EDARRITEGIA

GORA KARMENAK

Kale Nagusia, 7
943 55 00 32
HERNANI